

Euskal Herriko zein atzerriko arkitektoek diseinatutako eraikin berezi ugari daude euskal geografian. Horietako batzuek nazioarteko sari eta aitordenak jaso dituzte, nahiz eta inguruko herritar askok ezagutu ez.

Edertasunez, espazioa banatuz

Urtzi Urkizu

Frank Gehry arkitektoak Bilbon eraiki zuen Guggenheim Bilbao Museoa erakarri, milaka turista iristen dira urtero Euskal Herrira. Horien ahotan izaten dira Santiago Calatravak diseinatutako Loiuako aireportua (Bizkaia) edota Guardiako Ysios upategiak (Arabako). Baina Euskal Herri osoan badira eraikin moderno gehiago, ar-

kitekturaren munduan laudatuak, eta ez hain ezagunak. Euskal Herrian jaiotako arkitektoek diseinatutako eraikin berezi eta ederrak badira, baita kanpoko arkitektoek sortutakoak ere. Kanpotik zein barrutik bereziak, euskal geografian sakabanatuta daude erakusketa aretoak, liburutegiak, elizak, parkeak, haur eskolak eta etxeak; ikusteko modukoak, horietako asko. Duela aste batzuk, Alemaniako AD arkitektura aldizkariak munduko hamar liburutegi ederrenen

zerrendan sartu zuen Azkoitiko Udal Liburutegia (Gipuzkoa); Juan Beldarrain arkitektoaren lana da. Veneziako Arkitektura Biurtekora joaten direnek Arrosadiko haur eskola (Iruñea) ezagutu ahaliko dute larunbatetik aurrera —Carlos Pereda eta Oscar Perezek diseinatu zuten eraikina—. John Pawson arkitekto britainiarraren esaldiari erantzuten diote eraikinek: «Arkitekturaren helburua da espazioa ahalik eta ondoena banatzea, jendea ondo senti dadin». Edertasunez.



JUAN BELDARRAIN



ISABELLE MIQUELESTORENA

Cite de L'Océan et du Surf. Biarritz

Steven Holl arkitektoak (New York, AEB, 1947) Biarritzeko herriko etxeak (Lapurdi) 2005ean antolatutako lehiaketa irabazi zuen, Cite de L'Océan et du Surf eraikitzeko —2011era arte ez zuten inauguratu—. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko ondare batzordeko kide Mikel Rotaetxeren arabera, 2005etik 2011ra proiektuari ukituak emanez joan ziren, «eta emaila aparta izan zen». Udalak mu-

seo bat egin nahi zuen, baita hiriko hondartzei eskainitako erakusketa areto bat ere. Halaber, surfarekin lotutako egitasmoentzako zentro bat paratu zuten. Rotaetxek azaldu duenez, eraikinak bi lelo ditu: «Zeruaeren azpian eta itsasoaren azpian». Mendebaldera du itsasoa eraikinak, 300 metrora, eta hara begira daude estalki konkabo batzuk. Holl arkitektoak paisajismo lantzat jo zuen, ez eraikintzat. «Gainera, parte bat lurpean dago».

Goiko partean, beirazko bi kubo daude, bat txikia eta bestea handia. «Arkitektoak *harkaitz* deitu zien kuboei. Nabarmentzekoa da Hollek oso ondo egiten duela lan beirarekin», gaineratu du Rotaetxek. Eraikinaren inguruan espazio bereziak badira: terrazetako batean «bainuontzi moduko bat» dago skateboarda praktikatzeko. Itsasotik gertu dagoenez, material iraunkorrak erabili zituzten: beira, hormigoia eta kareharria. Espazioaren osotasuna «poesia handikoa» dela uste du Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko kideak: «Inguruan ez dut beste eraikinik ezagutzen halako poesiarekin».



LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKIPRESS

Basamortuaren plaza. Barakaldo

Eduardo Arroyo Bilboko arkitektoak diseinatutakoa da Barakaldoko (Bizkaia) Basamortuaren plaza. 2002. urtean inauguratu zuten. Arroyok modu honetan definitu zuen proiektua: «Toki primitibo bat, gaueko jarioekin, altzairuekin airean, trebesa eta errailekin, ikatz beltzez eta ur ilunez bete». Plaza egin aurretik fabrika batzuk zeuden han. Mikel Rotaetxe arkitektoak azaldu duenez, hango lurra deskutsatzen lan gogorra egin be-

har izan zuten. «Hura pozoituta zegoen». Baina lorategi bilakatu zen tokia, etxe artean. Lorategien eskari handia zegoen garai baten fruitutzat jo du Rotaetxek. «Planoa moisaiko baten moduko bat da, zentzurik gabeko *patchwork* bat, baina ederra». Plaza «oso sofistikatu» dela iruditzen zaio ondare adituari. 12.000 metro karratu dira, karratuz betetakoak. Arroyok berak Lasasareko futbol zelaia diseinatu zuen Barakaldon, aditu ugari azkeneko urteetan laudatu dutena.



Azkoitiko Udal Liburutegia. Gipuzkoa

Alemanio AD arkitektura aldizkariak apirillean argitaratu zuen zerrenda baten arabera, Azkoitiko (Gipuzkoa) Udal Liburutegia munduko hamar liburutegi ederrenen zerrendan dago. Ez da jaso duen aitortpen bakarra; 2007an, inauguratu eta urte batera, Kultura Arkitektoniko eta Urbanistikoko Iraunkorren Espainiako Saria jaso zuen.

Juan Beldarrain arkitektoaren obra da udal liburutegia. Urolako trenaren geltoki zaharreko espazioa okupatzen zuen 2006. urtearen aurretik, baina parte batean bakarrik. «Lehiaketa batera gonbidatu gintuzten. Eraikina zabaldu nahi zuten. Eta elbarriek soilik behako solairura joateko aukera zuten, hori ere konpondu nahi zuten», gogoratu du Beldarrainek. «Gure proposamena izan zen eskultura moduko bat egitea tren geltokian. Horrez gain, bulebar loreztatu batekin lotu genuen, trenarekin lotutako eremua espazio berri bat bilakatuz».

«Saski baten gisa» hartzen du liburutegia arkitektoak. Eta saski horretan daude antolatutako sarre- ra, eskalerrak, igogailua, komunak eta liburuzainarentzako gela bat. «Geltoki zaharra zen espazio guztia, berriz, libre gelditzen da liburu-

tegiaren hiru solairu bertan kokatzeko, areto handi eta malguekin».

Liburutegia kanpotik deigarria da, egurrezkoa delako. «Egurrezkoa izatea primeran ezkontzen da trenaren bulebarrarekin, espazio loreztatuarekin». Eraikin zahar- raren istorioak berriarekin lotura «poetiko» duela iradoki du Beldarrainek. «Gure ideia da eskultura bat eraiki dugula trenaren trabesak erabilita, bidea desmuntatu eta gero. Benetan horrela ez den arren, horixe iradokitzen dugu».

Iraunkortasun arloan eraikinak jaso dituen aitortpenak ez dira kasualitate hutsa izan. «Ondo aztertu genuen iristen ziren oholak kalitatezkoak izatea, ohikoak baino hobek. Proiektu txikia izan arren, pozik gaude Espainiako iraunkortasun saria eman zigutelako», dio Beldarrainek. «Birziklapena eta segurtasuna uztartzen ahalegindu ginen».

Arkitektoa «harro» dago, halaber, liburutegia AD aldizkari- ko zerrendan azaldu delako, argitalpen hori «jende askorentzat erreferen- tziatzat delako». Beldarrainek uste du nazioartean «konplexurik gabe» aritu behar dela: «Euskal Herrian oso arkitektura ona egiten da».



PEREDA-PEREZ ARQUITECTOS

Arrosadiko haur eskola. Iruñea

Iruñeko Arrosadia auzoko haur eskolaren eraikina ez dute soilik hango umeek eta gurasoek ezagutzen. Eskolaren maketa ikusgai izango da Veneziako Arkitektura Biurtekoan —bihar inauguratuko dute; publiko- arentzat, larunbatean—. Sariak ere jaso ditu, tartean 2013ko Espainiako Arkitektura Sari Nagusia eta Construmat nazioarteko saria. Carlos Pereda eta Oscar Perez dira egileak. Iruñeko Udalak antolatu

zuen lehiaketa baten fruitu izan zen eskola. «Tokia kontuan hartu gabe ezin da eraikina ulertu. Triangelu formako orube bat zegoen, beste eraikin baten atzealdean. Horregatik, eskolak zokalo baten modukoa izan behar zuela pentsatu genuen», esan du Carlos Peredak. Beto prefabrikatuz egindako eraikina da, eta irazkorra. «Altuera irabaziz joaten da, partzelan sakonduz doan heinean».

Barrutik eraikina «irazkorra» izan

zedin saiatu ziren Pereda eta Perez. «Argitasunez betea izatea nahi genuen. Umeek elkar begiratzeko aukera izatea. Funtsean, kanpoko irratiasuna barnean atsegin bilakatzeko», nabarmendu du Peredak. 3 urtera arteko umeak joaten dira Arrosadiko eskolara. Horregatik, erabilerari begira, logika beste edozein planteamenduren aurrean gailendu zela uste du arkitektoak. «Premisa oinarritzat hartu eta bakarra izan zen eraikin praktikoa bat izatea, ondo antolatua».

2011n inauguratu zuten, eta hurrengo urtean eraikin publiko iraunkorrenaren Endesa saria jaso zuen Arrosadiko haur eskolak. Gainera, Nafarroan geotermia energia garbiarekin eraiki zen aurreneko eraikin publikoa izan zen. «Landare estalkia du. Energia termikoa erabiltzen du. Beraz, garapen iraunkor- raren arabera eraikita dago».

Urteotako sariak asko poztu dute arkitektoa, «eskola erabiltzen duten jendearengatik, udaleko langileengatik eta ingurukoengatik». Nazioarteko aldizkari ugari- tan azaldu da eraikina: Alemani- an, Erresuma Batuan, Hego Korean...



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Koroatzearen eliza. Gasteiz

Miguel Fisac arkitektoak (Ciudad Real, Espainia, 1913-Madril, 2006) diseinatu zuen Gasteizko Andre Mariaren Koroatzearen eliza, eta 1957. eta 1960. urteen artean eraiki zuten. Proiektuak arkitektoaren bi

kezka zituen abiapuntutzat: argiaren tratamendua eta elizaren kokalekua. Mikel Rotaetxe arkitektoaren iritziz, Gasteizko eraikin berezia da eliza. «Fisac arkitektoaren onenetakoa ere bada. Fisacen lan- nei buruzko liburu baten azalean

ere ageri da elizaren argazkia». Arabako hiriburuko alde zahar- raren ipar-mendebaldean dago eraikina. «Inguruko eraikinak erabat neutroak dira, aldamenean plaza arunt bat dago».

Kanpotik arrautza itxura du eraikinak, ez du zerikusirik garai bateko elizekin. «Baina 1960ko hamarkadan egiten ziren eliza moderno- en tankerakoa bada», azaldu du Rotaetxek. Arkitektoari batez ere elizaren barnealdean egiten zaio deigarria: «Hegoalderantz begira dago, eta argia soilik eskuintetik dator. Eskubiko paretan zuzena da, harrizkoa, eta zulo bertikal txiki batzuk ditu. Argi gutxi sartzen da horietatik. Paretak horrek, amaie- ran, leiho bat du, aldaretik gertu, eta hortik sartzen da argi gehie- na». Ezkerreko paretan, berriz, kurbatua eta zuriz margotua da. Edonola ere, argiaren berezitasunez aparte, elizaren ezaugarri bitxia da barneko lurzorua ez dela hori- zontala, baizik eta maldan dagoe- la. Maldan gora egiten du, aldre- rantz. «Elizara sartzen denak bere- hala nabaritzen du maldan hori. Ez da batera ohikoa eliza baten lur- zorua maldan egotea. Ez dut inon halakorik ikusi», esan du Rotaetxek.

Eliza lehengai sinplez dago egi- na: harria, egurra eta betoia. «Tei- latua, berriz, oso sofistikatu da eraikinaren beste parteen alde- an». Rotaetxek Fisac arkitektoa goraiatu du: «Oso ona zen».